

GURASOAK ESKOLA BIDEAN

MIKEL UGALDE

Badira gure herrian egunkarietan azaltzen ez diren gertae-
rak, telebistaren albisterian lekurik ez dutenak, guraso talde
bat eskola bidean zintzo asko abiatuak ikusteak albiste maila-
rik mereziko ez balu bezala.

«Nahikoa diagu—pentsa lezake bateren batek—, gure es-
kola garaiak joan hituan. Lanik asko badiagu seme-alabak es-
kolaren arrastoen sartzan». Konforme, baina guraso eskola
errealitate bat izan da aurtengo honetan, eta errealitate den
neurrian albiste ere bai.

GURASO ESKOLA

«Ja, ja, ja, gure gurasoek eskolara joan behar omen dute»
zioten elkarri Orereta Ikastolako ikasleek guraso eskola mar-
txan jarria zela jakin zutenean, erabat harri eta zur. Ez dute
arrazoien faltarik, beraiek eskolatik alde egiteko zai jarriak
dauden honetan zer erabakiko eta, gurasoak eskolara hala-
zankoa! Irri eta harri! Horra hor nobedadea.

Bueno, bale. Eskola zertarako? Ikastaroan zehar gure bai-
tan izan dugun galdera honi halako erantzun arrunta eman
diogu. Eskola zertarako? Guraso hobek izaten ikasteko.

GURASOEN KARNETA

Karnetez josiak bizi garen honetan agian guraso karneta
eskuraraztea zilegi izango ote litzateke? Badugu Nortasun
Agiri Nazionala, badugu kirol, kultur, alderdi edota sindikatu-
ko karneta. Derrigorrezkoa da karneta legez gidatu nahi de-
nean, ezinbestekoa hainbat eta hainbat eginkizunerako ditxo
sozko karneta. Lehenago burokrasiaz eta paperez leporaino
gauden honetan zer proposatuko eta, guraso karneta alajai-
na! Badugu aurreragoko lanik. «Jo ezak tronpeta alferrikakoa
duk karneta!»

Zer da inportanteagoa, seme-alaba ala autoa gidatzea?
Autoak gidatzeko karneta beharra bai eta guraso bezala
seme-alabak hezitzeke ez? «Et, et... hori demagogia merke
duk, batak ez dik bestearekin ezeren ikustekorik» erantzun
didazue. Arrazoi osoz gainera.

Gatozen erdi bide batetara. Guraso izaten asmatzeak lanik
ematen digula ez diguzue ukatuko noski, egunetik egunera
zailagoa dela garbi dago. Zer nahi lanbidek prestakuntza be-
rezia eskatzen du. Guraso izaera egoki bideratzea ez da nola-
nahiko lanbide, ezta hurrik eman ere.

Eskolaren porrotaz sarri hitzegiten da, kalabazen ugariak
eskolaren (ala gizartearen?) frakasua erakusten du nonbait.
Guraso bezala etsamin bat egin beharko bagenu gainditzeko
gaitasunik erakutsiko ote genuke? A zer kalabaza pilla!

IKASTURTEAN ZEHAR

Luzapenetan ibili gabe, ikasturtean zehar egindakoaren
zenbait xehetasun aipatu baino ez dugu egingo gaurko
honetan.

Orereta ikastolan gurasoei buruz halako konstatapen ba-
tetara iritsi ginen: ikastolan problematiko izan zitezkeen hau-
rren guraso gehienak ere problematikoak zirela, zenbait pau-
su ematen hasi behar eta gurasoak hezitzen asmatu
beharrean ginela, eskolan eginiko lana ia hutsean gelditzen
zela etxean erantzun hoberik ez jasotzekotan.

Eta horrela guraso eskola martxan jartzeari ekin genion.
Apal, apal, zaratarik gabe, inongo iragarki eta publiziterik
gabe. Hamabostero biltzea erabaki genuen.

Lehen momentutik konturatu ginen ez zela nolanahiko
eskola, ez genuen etsaminak aprobatarren bertaratu behar,
gure barruak eskatzen zigun gai eta arazoak jorratu asmoz
biltzen ginen bertara. Hau ere pentsatzekoa da gero, ezeren
aukerabiderik ez duen ikaslea eskolan aspertzen dela ikus-
teak ez gaitu harritu behar.

GAIK ZABALAK, DENETARIKOAK

Gure seme-alabak eskolan daudela konturaturik eskola
bera non dagoen, hezkuntza sistemarekin zer lotura duen,
non eta nola kokatua dagoen, aztertzea komenigarritzat jo-
zen. Hezkuntza sistema azaldu eta aztertzeari ekin genion.
Ondoren gurasoen eginbideak zeintzuk diren eta abar araka-
tu genituen, guzti honetan gurasoak zer pintatzen duen, bere
erantzukizuna nondik norakoa den. Hortik aurrera, gai zehatz
eta konkretuagoak ere jorratu genituen. Horietako bat eba-
luaketarena. Gaiaren sakonak horrela eskaturik gogor ekin
genion. Oraindik ebaluatzen ikasi beharrean garelako garbi iku-
si dugu. Etsaminak jarri, kalifikatu, oharrak eman eta, ondo-
rioz, zigorrak ezarri ala sariak banatu, hor nonbait egiten du-
gu, baina egiazki ebaluatu...

Beste esperientzia bat ere egin dugu, bakoitzari bere
seme-alabaren ikas mailaren arabera erantzuten saiatu ga-
tzaizkio, eta eskolaurreko, oinarrizko hezketa mailako eta ba-
txilergo gurasoen taldeak sortu genituen irakasleak lankide
genituelarik.

Esperientzia bikaina izan da benetan.

METODOLOGIA

Ahalik eta eraginkorrenak egin ditugu eskola saioak. Gu-
rasoa bera zen mintzo, gurasoa entzule, gurasoa irakasle na-
hiz ikasle. Elkar entzuten ikasi dugulakoan nago. Bakoitzak
bere esperientzia azaldu du eta besteren esanak gogoan
hartu.

Lehenik azalpen labur bat egiten zen, ondoren talde ttipi-
tan banaturik talde lanari ekiten zitzaion. Ondoren talde ba-
koitzeko gogoetak eta eritziak jasotzen genituen guztion
aberasgarri.

Gaiak, pentsa esate baterako zigorrari buruzkoa, eztabai-
dagai gertatzen ziren askotan eta horrek gatz eta piperra
ematen zion saioari, ez zen horrelakoetan hizpiderik falta.

GERORAKO BAIKOR

Hemen aipatu ditugun bezalako ekintzek badituzte alde
onak eta baita zuzendu beharreko pausu okerrak ere. Oro har,
gurasoak kontentua azaldu dira «guraso hobek izateko infor-
mazio baliagarria jasotzeko parada eman digulako».

Eskaera gisa honako proposamenok jaso ditugu: gaiak
zehatzagoak ezarri beharra, lardasketan ibili gabe zuzenean
eta bertatik jorratu beharra. Antolaketa aldetik gauzak zuzen-
du ahal izateko talde eragile bat sortu beharra ere ikusi
da.

Urtean zehar ez dugu erreibindikaziorik izan, ez huelgarik,
ez liskarrik, ez suspentsorik, ez gai gogaikarrik, ez ikasle-
irakasle plazarik. Ez dugu ikasturtean zehar irakaskuntzan,
pribatuan nahiz publikoan, sortutako arazorik izan. Honelako
eskola batek, guraso eskolak alegia, baditu, besteekin kon-
paratuz, halako bentajak. Aurrera begira ere hortik jotzen
saiatuko gara.

EZINBESTEKOA

Ezinbestekoak dira honelako ekintzak ikastetxe batetan,
ongi jokatu nahi duen ikastetxe batetan. Are gehiago esango
genuke, ikastetxe mailan ez ezik, herri mailan ere horrelako
antolamenduak eragin eta bultzatzea egin beharko lirateke udala-
ren eskutik. Gurasoen arazoak beretsuak dira han eta hemen,
eta eskolaren barrutia gainditu beharra nabaria da.

Askotan ikastetxe bat zuzen ala oker dabilen ezin asmatu-
rik gabiltza, ez dakigu, jakin, zuzen dabilen, kezkatu egon ohi
gara. Nire eritziz, honako hiru baldintzok betetzen dituen es-
kolak ez du porrot egingo. Hiru baldintza baino ez dira: ikas-
leak kontentua eta pozik mantentzen saiatzea, ikastetxearen
martxa urtero ebaluatzea eta gurasoak hezibidean jartzeko
antolamenduak lantzea. Hiru baldintza baino ez dira...